

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

48/2020 Mozioa, uztailearen 15ekoa, Arabako Foru Aldundiari eskatuz beharrezko neurriak har ditzala tokiko erakundeen iraunkortasuna bermatzeko, hitzartutako zergen bilketan murrizketak egongo direla aurreikusita

Arabako Batzar Nagusiek, 2020ko uztailearen 15ean egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

48/2020 Mozioa, uztailearen 15ekoa, Arabako Foru Aldundiari eskatuz beharrezko neurriak har ditzala tokiko erakundeen iraunkortasuna bermatzeko, hitzartutako zergen bilketan murrizketak egongo direla aurreikusita.

Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote kontuan har dezala tokiko erakundeen egoera, zerga-bilketan aurreikusten diren murrizketek Arabako toki erakundeen TEFFFan eragina izango baitute. Halaber, eskatzen diote beharrezkoa izanez gero, ezohiko eran, neurri zehatzak har ditzala tokiko eskumeneko zerbitzu publikoen kudeaketa eta prestazioa bermatzeko, baita tokiko erakunde horien iraunkortasuna ziurtatzeko ere.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailearen 15a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA